

Goikoetxea, Errezil, Urtebi, Patzuloa...

Laster hogeitun urte izango dira Diputazioak bertako sagar motei eusteko plangintzari ekin ziola

FELIX IBARGUTXI/DV. DONOSTIA

Berriz ere martxan jarri du Gipuzkoako Diputazioak sagardotarako sagarrondoak aldatzeko dirulaguntzen plana. Ia hogeitun urte badi-ra Foru Aldundia sagardotarako sagar mota tradizionalei eusteko plangintzari ekin ziola, 1982an hasi baitziren bertako teknikariak baserriz baserri mentu biltzen, gero Hondarribiko Zubietako Etxaldean txertoak egiteko.

Asteasun Diputazioak daukan mintegian prest daude jadanik sagar-landareak, nahi duten gutxientzat eskuragai. Patroi franko nahiz klonalean txertatuak dira, honako bi patroi klonal erabili direlarik: EM7 eta MM106. Landareak 500 pezetan saltzen dira.

Garratzei dagokionez, Geza Mina eta Moko motak daude Hondarribian. Mikatzen eta gazi-gozoen taldean, berriz, beste mota hauek: Errezila, Manttoni, Txalaka, Urtebi Haundia eta Urtebi Txikia. Eta gozoren eta gezen atalean, beste bi mota eskura daitezke: Mozolua eta Patzuloa.

Dirulaguntzak eskuratzeko, ehun landare erosi behar dira gutxienez, eta Diputazioko teknikariek ziurtatu behar dute era egokian aldatu direla. Nolanahi ere, sagasti txikiagoak dituztenei ere saltzen zaizkie landareak.

Foru Aldundiko Iñaki Larrañagak adierazi digunez, 1982ko urtarril-otsailean hasi ziren bertako teknikariak baserrietara bisitak egiten, sagar-mota egokienak ezagutu nahian eta baserriarrei mentuak eskatzeko. Jose Uria Irastorzak emandako argibideak oso baliotsuak izan zitzaizkien. Uria jarduna baitzen lehendik sagar motak bildu eta haien zaporre, tamaina eta beste ezaugarri batzuk aztertzen, sagardotarako zein ziren egokiak eta zein ez jakin nahian.



Txalaka baserria, txalaka sagarraren sorlekua?

Sagardotarako sagar motarik ezagunena Txalaka da. Gazia da, mikatz samarra eta urtsua, eta sagardogile guztiek oso estimatzen dute. Zenbaiten iritziz, Astigarragako Txalaka baserritik dator kio izena sagarrari, eta bertan bizi diren Minertar anaiek hau adierazi digute: «Paraje honetan uholdeak izan dira askotan eta behin, uholde batek utzitako zabor artean sagarrondo bat erri zen. Baserri honetako aitonaren batek hartu zuen landare hura eta etxe ondoko zelaiari zeharraldatu. Leienda da, baina egia den itxura duen leienda».

Hernaniko Iparragirre baserrian, adibidez, Txalaka, Txori Sagarra, Aritza eta Moko motetako mentuak jaso zituzten. «Han sagardoa egite zuten eta guretzako baliotsuagoak izaten ziren, beti ere, sagardogileen iritzia», esan digu Larrañagak.

Zubietako Arzabaleta baserrian, berriz, Patzulua, Merkalin, Petritxa eta Mozolua barietateetako mentuak eskuratu zituzten. Oso estimatua den Ugarte mota, aldiz,

Hernaniko Elobarri baserrian inguratu zuten. Eta oso zabaldua dagoen Goikoetxea motako mentuak Hernaniko Elobarrin ez ezik, herri bereko Añarregin ere lortu zuten.

Diputazioko teknikariak ez ziren Hernani-Astigarraga aldeko baserrietara mugatu. Debako Zian-Zarren ere inguratu zituzten mota batzuk; Larraulgo Larrunbide Etxean eta Larrolan; Zizurkilgo Pagamuñon; Segurako Aspa-

otzan; Endoiako Barrensoron; eta Orendaingo Larretan, besteak beste.

Bost Kantoi motari dagokionez, bazekiten Bizkaian askoz ugariagoa zela eta, halaxe, Gizaburugako Goikoetxea baserrian jaso zituzten mentuak.

Dantza handia zegoen orduan sagarren izenen inguruan, eta orain ere halatsu dabilta kontuak. Esate batetako, Diputazioko teknikariek Udare sagarra bildu zute-

nean, konturatu ziren izen horrekin oso sagar mota desberdinak bataiatu ohi zituztela baserriarrek. Azkenean, mentu onenak aukeratuz, Udare Zuria eta Udare Marroia izenekin izendatu ziren bi azpi-mota horiek.

■ *Orain ere landareak saltzen dizkie Aldundiak sagasti jabeei*

1982an 36 sagar mota bildu zituzten. Denekin egin ziren azterketak eta, denboraren poderioz, asko bazterrera utzi dira, sagardotarako oso egokiak ez direlako, oso emaleak ez direlako edota gaitzek erraz hartzen dutelako mendeen.

Esan bezala, Jose Uria Irastorzak lehenago egindako bilketa eta azterketak oinarri ona izan ziren Diputazioarentzako. Tolosar hau ESiko (Eusko Sagarraren Ikerle Taldea) kidea zen eta *Sagardoa* liburua idatzi zuen.

Foru Aldundiak ekimen honi heldu zionean sagastietako egoera oso kezagarria zen. Baserriar gehienek apenas zaintzen zituzten sagarrondoak. Bestalde, 60 eta 70eko hamarkadetan sagasti askotan pinua aldatu zen. Gauzak horrela, Gipuzkoako sagardogileek ez zuten bertan aski sagarrik inguratzen. Oraingo aldean, askoz gutxiago.

Bilketa ez da amaitutzat jo. Orain denbora asko ez dela, Iñaki Larrañagak Gezamin Beltza izeneko mota topatu zuen Igeldo-ko baserri batean. Laboratorioan egindako azterketek emaitza onak izan dituzte, jaso dira horko mentu batzuk, txertaketak egin eta zabaltzen hasteko.